Ekitaldia sortzen denean zehaztu behar dira helburuak, eta helburu horiek lortzeko erabilgarri ditugun aukera guztiak baloratu behar dira, mugatzen duten faktoreak barne (ekonomikoak, legezkoak...).

Non egingo dugun pentsatu behar dugu, eta eragingo dituen inpaktu guztiak –negatiboak eta positiboak– baloratu behar ditugu.

Gainera, fase honetan definitu beharko dira alderdi zehatzagoak ere: kronogramak, behar diren pertsonak eta aurrekontuak.

Gauzatu nahi dugun programaren oinarriak zehazteko, oso baliagarria da aurreko esperientzietatik ikasitakoa biltzea, horrela akats berberak egitea saihesteko eta horiek gainditzeko lagundu dezaketen konponbideak aplikatzeko.

Etapa honetan, besteak beste:

1. **Ekitaldien datak eta iraupena hautatuko dira.**
2. **Ekitaldia egiteko lekua/lekuak hautatuko da/dira.**
3. **Jarduera-programa planteatuko da.**
4. **Programa eta programatutako jardueren xede-publikoarengana iristeko komunikazio-euskarriak diseinatuko dira.**
5. **Plangintza egingo da.**
6. **Programatutako jarduerak egiteko behar diren baimenak lortuko dira.**
7. **Aurrekontua itxiko da.**

2) Gauzatzeko / ekoizteko / egiteko fasea

Talde antolatzailea, ekitaldiaren diseinua eskuan duela eta edukiak programatuta eta behar materialak eta finantzarioak identifikatuta daudenean, ekitaldiaren antolaketa operatiboarekin has daiteke. Une honetan agertoki alternatiboak planteatu beharko dira ekitaldia aire zabalean egitekoa bada eta euria egin dezakeela iragarrita badago, edo beste edozein aldaketa edo ezusteko izaten bada ere.

Fase honetan gauzatuko da aldez aurretik diseinatutako programazioa. Honako ekintza hauek egingo dira: ekitaldia egiteko beharrezkoak diren instalazioak muntatu eta desmuntatu, jarduerak egiteko modua kontrolatu, antolaketa-alderdi guztiak eta bakoitza gainbegiratu, diseinuan, plangintzan eta antolaketan konfiguratutako jarduerak behar bezala inplementatzea lortzeko.

Aurreikusitako programazioa gauzatzeaz gain, garrantzitsua da ekitaldiaren eragina ebaluatzen eta kuantifikatzeko faserako beharrezko informazioa eta datuak biltzea.

Fase honek, besteak beste, ekintza hauek barne hartzen ditu:

1. **Produktuen eta zerbitzuen hornitzaileekin harremanetan jartzea eta koordinatzea.**
2. **Kontratutako zerbitzuak emateko moduak eta ordutegiak ezartzea.**
3. **Ekitaldia/ekitaldiak egingo den/diren espazioak muntatzea/desmuntatzea.**
4. **Programatutako jarduerak gainbegiratzea eta kontrolatzea.**

3) Baloratzeko fasea

Jarduerak egin ondoren, **itxiera-jarduerak egin behar dira lortutako emaitzak ebaluatzen.**

Jarduerak diseinatzeko eta gauzatzeko prozesuetan bildutako informazio guztia baliagarria izango zaigu gure indarguneak eta ahulguneak eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzeko, bai eta, besteak beste, geroko finkatutzat eman daitezkeen jarduerak eta, xede zuten publikoaren aldetik izan duten harrera eskasarengatik, baztertu edo aldatu behar direnak identifikatzeko ere. Edota antolatzaileak hasiera batean garrantzirik eman ez zien edo hasiera batean ikusi ez zituen alderdiak kontuan hartzeko ere.


Fase honetan, honako ekintzak gauzatuko dira:

- 1. Jarduerak egin diren guneeetan erabilitako materialak desmuntatu eta jasoko dira.**
- 2. Kronogramak, timingak, parte hartu duen publikoa, jarduerak muntatzean/garatzean izan diren gorabeherak eta beste hainbat alderdi baloratuko dira.**
- 3. Jardueren kontabilitatea itxiko da.**
- 4. Ekitaldiaren amaierako txostena egingo da, emaitzak kuantifikatuta eta ondorioak sartuta.**

27. GAIA.- Jai-unitateko giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak. Egungo organigrama eta aurrekontua. Diru-laguntzen lerroak.

1. Pertsonala

Donostia Kulturako Jai Unitatea 11 pertsonak osatzen dute gaur egun, eta honako organigrama eta funtzioak dituzte:



1.- Zuzendaria

Funtzio espezifikoko hauek ditu:

- Arloak gauzatu beharreko jarduerak, prozesuak eta proiektuak diseinatzea, haren funtzioak betetzeko.
- Arloko jarduerak eta zereginak zuzentzea eta koordinatzea.
- Arloari atxikitako pertsonalaren buru izatea. Hautaketa epaimahaietan parte hartzea.
- Zerbitzua garatzeko, agiri teknikoak prestatzeko eta kontratuen jarraipena egiteko beharrezkoak diren kontratazioak sustatzea. Participación en Mesas de contratación.
- Lortutako emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egitea. Etengabeko hobekuntzako prozesuak bultzatzea.
- Barruko zein kanpoko harremanak izatea, informazioa biltzeko eta jarduketak koordinatzeko
- Arloaren aurrekontu proposamena egitea eta haren betearaztea kontrolatzea.
- Babesletzak eta dirulaguntzak lortzea eta kudeatzea.
- Donostiako jaien programazioa diseinatzea eta kudeatzea, teknikari taldearekin lankidetzan.
- Auzo elkarrekin, kultura erakundeekin eta abarrekin baliabideak lortzen laguntzea, elkarte horiek antolatutako jai jarduerak abian jartzeko.
- Udalak eskatuta, beste udalerri batzuekin senidetzeko prozesuak kudeatzea.
- Jardueren garapena eta baliabideen erabilera kontrolatzea, eta gorabeherak konpontzea.
- Era berean, agintzen zaizkion zereginak gauzatzea, lanpostua eskuratu eta betetzeko behar den kualifikazioarekin bat etorri, aurretik zerrendatutakoak alde batera utzi gabe.

2. Jai erakundeetako teknikaria

Funtzio espezifikoko hauek ditu:

- Arloko burutzaren ikuskaritzapean, Donostia Kulturaren eremuko jaien programazioa diseinatzea eta horren jarraipena egitea.
- Jarduerak garatzeko, aurrekontuak egiteko eta gastuaren jarraipena egiteko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak aztertzea.

- Programatutako jarduerak osorik tratatzeko jarduketa protokoloak ezartzea.
- Jardueren "in situ" gauzatzea koordinatzea, muntaiak gainbegiratzea, kontratatutako zerbitzuak egitea eta programatutako jarduerak behar bezala garatzea (gorabeherak ebatzita).
- Esleitutako teknikarien lana antolatzea eta banatzea, haien zereginak gainbegiratu eta koordinatu.
- Antolatutako jardueren garapena eta emaitza ekonomikoa eta irudikoa aztertzea, eta horietan hobekuntzak proposatzea, ekintza berrien programazioaren bideragarritasuna aztertuta.
- Arloak programatutako jardueren komunikazioan laguntzea.
- Udaleko sailekin, beste erakunde batzuekin, elkarteekin, kolektiboekin, herritarrekin eta abarrekin koordinatzea.
- Zerbitzuak kontratatzen eta horien jarraipena egiten laguntzea. Era berean, agintzen zaizkion zereginak gauzatzea, lanpostua eskuratu eta betetzeko behar den kualifikazioarekin bat etorriz, aurretik zerrendatutakoak alde batera utzi gabe.

3. Jai-erakundeetako teknikariaren albokoa

Funtzio espezifiko hauek ditu:

- Donostia Kulturaren esparruko jaien programazioa diseinatzeko eta haren jarraipena egiten laguntzea.
- Jarduerak garatzeko, aurrekontuak egiteko eta gastuaren jarraipena egiteko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak aztertzen laguntzea.
- Programatutako jarduerak erabat tratatzeko jarduketa protokoloak ezartzen laguntzea.
- Jardueren "in situ" gauzatzea koordinatzea, muntaiak gainbegiratzea, kontratatutako zerbitzuak egitea eta programatutako jarduerak behar bezala garatzea (gorabeherak ebatzita).
- Esleitutako pertsonal teknikarien lana antolatzen eta banatzen laguntzea.
- Pertsonal teknikarien egutegia kontrolatzea.
- Udaleko sailekin, beste erakunde batzuekin, elkarteekin, kolektiboekin, herritarrekin eta abarrekin koordinatzea.
- Jardueren eta proiektuen txostenak, ebaluazioak eta memoriak egitea.
- Era berean, agintzen zaizkion zereginak gauzatzea, lanpostua eskuratu eta betetzeko behar den kualifikazioarekin bat etorriz, aurretik zerrendatutakoak alde

batera utzi gabe.

4.- Jai jardueretako teknikariak

- Programatutako jai-jarduera bakoitzaren garapenaren eta hedapenaren euskarri administratiboa eta grafikoa osatzen duten edizioko, mekanografiako, artxiboko, korrespondentziako eta abarreko zereginak egitea.
- Arreta pertsonala eta telefono bidezkoa ematea kolektiboek nahiz publiko orokorrak egindako kontsultei eta eskaerei.
- Arloko zuzendaritzari laguntzeko zereginak egitea, haren eginkizunak gara ditzan: dokumentazioa prestatzea, kontaktuak kudeatzea, agenda...
- Donostia Kulturaren web orria elikatzeaz arduratzea.
- Jaietako jardueren edukiak proposatzea eta diseinuan laguntzea, jaietako erakundeetako teknikariak eta Festen arloko buruak gainbegiratuta; gainera, proposatutako jardueretarako aurrekontuak eskatzea.
- Programatutako jarduerak egiteko behar diren azpiegitura eta baliabide teknikoak kudeaketaz arduratzea.
- Donostiako auzoetan jaiak ospatzeko eta Sailak laguntzen dituen jardueretarako baimenen eta azpiegiturak osorik kudeatzea.
- Jarduerak "in situ" koordinatzen eta gauzatzen laguntzea, horiek dakartzaten muntaiak gainbegiratzea, kontratatutako zerbitzuak egiten direla gainbegiratzea eta programatutako jarduerak behar bezala garatzen direla egiaztatzea. Behar izanez gero, sormen fase zehatzetan parte hartzea.
- Donostiarekin senidetutako hiriekin askotariko ekintzak koordinatzeaz, kudeatzeaz eta garatzeaz arduratzea.
- Era berean, agintzen zaizkion zereginak gauzatzea, lanpostua eskuratu eta betetzeko behar den kualifikazioarekin bat etorriz, aurretik zerrendatutakoak alde batera utzi gabe.

5.- 2 Administrariak

Hauek dira unitateko administrariei dagozkien zereginak:

- Unitateko administrazio-laguntzako lanak egitea, eta, horretarako, jendeari, langileei eta telefonoari, administrazio eta kontabilitate tramiteari, mekanografiari eta artxiboari arreta ematea.
- Jendeari arreta ematea, pertsonala eta telefono bidezkoa.

- Ordenagailuak eta programa informatikoak erabiltzea, barne direla Microsoft Office (Word, Access, Excel), baita arlo bakoitzeko aplikazio espezifiko korporatiboak eta talde laneko aplikazioak ere (Lotus Notes).
- Administrazio laguntza ematea espedienteak, baimenak, lizentziak eta abar tramitatzean, baita epeak, argitalpenak, iragarkiak, jakinarazpenak eta abar kontrolatzea ere.
- Dokumentuen sarrera eta irteera erregistroak, intzidentziak, etab.
- Altak, bajak, intzidentziak eta abar eguneratzea mota orotako errolda, erregistro edo datu-baseetan.
- Espedienteak eta dokumentuak antolatzea, sailkatzea eta artxibatzea.
- Likidazioak, zergak, tasak, prezio publikoak, etab.
- Fakturazioak, kobrantsak, ordainketak eta kontabilitate-zereginak.
- Ziurtagiriak eta irizpenak, eta mekanografiako, fotokopiatzeko eta fax-arretako zeregin orokorrak.
- Lanpostuaren kualifikazioarekin bat datozen beste zeregin batzuk egitea, aurrekoen kaltetan izan gabe.

Aurrekontua

Donostia Kulturako Jai Unitateak 2.931.061,03 €-ko gastu-aurrekontua du 2024rako (pertsonala kanpo), eta horietatik:

2.484.748,60 € erabiltzen dira bere ardurapeko jaiak programatzeko.

446.312,43 € irabazi-asmorik gabeko elkarteentzako dirulaguntzen atalari dagozkio.

Gastu-aurrekontuaren zenbateko garrantzitsuena Aste Nagusiari dagokio, eta ondoren datoz Donostiako Estropadak eta Su Artifizialen Lehiaketa.

Hiriko auzoetako jaiak laugarren tokian agertzen dira gastuaren atalean.

Urteko jai-jarduerak antolatzeko behar diren diru sarrerak honako hauek dira:

% 82, Udalaren ekarpena

% 18, babesleen, laguntzaileen eta leihatilako jardueren ekarpenak

Dirulaguntza lerroak

Laguntza ekonomikoetara bideratutako zenbatekoei dagokienez, kopuru osoaren banaketa honako hau da:

- Helduen danborrada / Tamborrada de personas adultas
- Haurren danborrada / Tamborrada infantil
- Kaldereroen konpartsa / Comparsas de caldereros/as
- Inauteriak / Carnavales
- Olentzero eta Mari Domingi
- Auzo festak / Fiestas de barrios
- Abordatzea / Piratak Kaia

177.301,29 €
45.881,48 €
4.949,32 €
35.607,59 €
2.474,64 €
147.097,71 €
33.000,00 €

Dirulaguntza lerro guztiak irekiak dira, Aste Nagusia Piratari urtero emandakoa izan ezik, hori zuzeneko laguntza baita.

Dirulaguntza lerro bakoitzaren ezaugarri nagusiak:

Helduen danborrada:

1.- San Sebastian eguneko ospakizunetan parte hartzen duten helduen danborrada mistoentzako norgehiagoka araubideko dirulaguntza lerroa, urtarrilaren 20an Donostiako auzoetan desfilatzeko.

2. Egoitza eta jarduera esparrua Donostiako udalerrian duten eta Donostiako auzoetan Helduen Danborrada mistoak antolatzen dituzten gastronomia, kultura, kirol, hezkuntza, aisialdi eta/edo jolaseko elkarteei zuzenduta. Aipatutako danborradek Helduen Danborradetan Parte Hartzeko Araudian jasotako baldintzak bete beharko dituzte.

3.- Helduen danborrada mistoak antolatzen dituzten elkarteentzako dirulaguntzetarako aurrekontu partidan jasotako zenbatekoa oinarri hauetan eskatutako agiriak epe barruan aurkeztu eta bertan jasotako alderdi guztiak betetzen dituzten elkarte guztien artean banatuko da, honako berezitasun hauekin:

I.- Kolektibo bakoitzari dagokion dirulaguntza jasotzen dute, bider 2, urte bakar batean, eta osaera mistoa duten eta lehen aldiz parte hartzen duten danborradek.

II- Halaber, dirulaguntza bider 1,5 jasotzen dute, behin bakarrik, gizonezko konposizioa izan duten eta mistoak izatera igaro diren danborradek, baldin eta gizonek eta emakumeek baldintza berdinetan parte hartzen badute danborrada gisa egiten dituzten irteeretan.

Haurren danborrada:

1. Norgehiagoka-araubideko dirulaguntza, Donostia Kulturak 2024ko urtarrilaren 20an Donostian antolatutako Haur Danborradan parte hartzeagatik eta 2024an Donostiako auzoetan haur-danborradak ateratzeagatik.

2.- Honako hauei zuzenduta: egoitza eta jarduera-esparrua Donostiako udalerrian duten eta Donostia Kulturak 2024ko urtarrilaren 20an Donostian antolatutako Haur Danborradan edo 2024an Donostiako auzoetatik haur-danborraden irteerak antolatzen dituzten ikastetxe eta elkarteak, eta gastronomia, kultura, kirol, hezkuntza eta/edo jolaseko elkarteak.

Aipatutako danborradek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a.- Kideen adina ezingo da 6 urtetik beherakoa izan, ezta 14 urtetik gorakoa ere.
- b.- Danborrada honako hauek osatuko dute, gutxienez:
 - 1 gastadore kabo
 - 6 gastadore
 - 1 banderadun

 - 8 kantinari
 - 1 danbor nagusi
 - 1 danborrari kabo
 - 24 edo 30 danborrari 6ko formazioan
 - 1 upel kabo
 - 36 edo 42 upel 6ko formazioan
- c.- Uniformeak napoleonikoak izango dira danborrariantzat (auzoko danborradetan izan ezik, horiek sukaldari-jantzia erabili ahal izango baitute). Upel-jotzaileen uniformeak napoleonikoak, sukaldariak edo urketariak izan daitezke (halakoetan, upelaren ordeaz ferreta erabili ahal izango da).
- d.- Auzoetan desfilatzen duten danborraden musika laguntza zuzeneko musikarekin (banda edo antzekoa) egin beharko da.
- e.- Irteera urtarrilaren 20an bertan edo, gehienez ere, bezperan arratsaldean egin beharko da.

Ez dira auzoko haur danborradatzat hartuko (eta ez dute dirulaguntzarik jasotzeko eskubiderik izango) hiriko auzoetan dauden ikastetxeek antolatuta daudenak eta Donostiako kaleetan edo beste edozein lekutan irteeraren bat egiten dutenak.

Ez da inoiz ere dirulaguntzarik jasoko urtarrilaren 20ko Haur Danborradan parte hartzeagatik eta dagokien auzoko kaleetatik irteteagatik.

3.- DONOSTIA KULTURAK 2024ko urtarrilaren 20an antolatutako Haur Danborradan parte hartzen duten erakundeentzako dirulaguntzetarako aurrekontu partidari biltutako zenbatekoa berdin banatuko da bertan parte hartzen duten konpainia guztien artean eta "historikoak" izeneko haur danborraden artean, baldin eta oinarri hauetan eskatutako dokumentazioa epe barruan aurkeztu badute eta bertan jasotako alderdi guztiak betetzen badituzte.

Kaldereroak

1. Norgehiagoka araubideko dirulaguntza lerroa, 2024an Donostian Kaldereroen Konpartsa Mistoak antolatzeko.

2.- Egoitza eta jarduketa esparrua Donostiako udalerrian duten eta Donostiako auzoetan Kaldereroen Konpartsa Mistoak antolatzen dituzten gastronomia, kultura, kirol, aisialdi eta/edo jolaseko elkarteei zuzenduta.

3.- Kaldereroen talde antolatzaileentzako laguntza ekonomikoetarako aurrekontu partidari jasotako zenbatekoa modu ekitatiboan banatuko da oinarri hauetan eskatutako agiriak epe barruan aurkeztu dituzten eta bertan jasotako alderdi guztiak betetzen dituzten kolektibo guztien artean, baremo honen arabera:

Konpartsako kide kopurua:

0,20 x pax.

Gehienez 40 puntu

Musikari kopurua

0,5 x musikari

Gehienez 10 puntu

Gehitutako elementuen kopurua (osagarriak)

0,5 x elementu

Gehienez 5 puntu

Megafonia

1 x 1.000 watt

Gehienez 5 puntu

Argiztapena

1 x 1.000 watt

Gehienez 5 puntu

Beste jarduera batzuk

15 x bakoitza

Gehienez 45 puntu

Saioak

2 x egun

Gehienez 10 puntu

DONOSTIA KULTURAK materiala lagaz gero, puntu hauek kenduko dira:

Oholtzak 0,50 x m²

Hesiak 0,25 x hesi

Megafonia Megafoniaren zenbatekoaren % 100

Talde bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa lortutako puntuen balorazioaren bidez ezarriko da.

Puntu bakoitzaren balioa kalkulatzeko, parte hartzen duten kolektibo guztiek lortutako puntuen baturaren artean banatu beharreko zenbatekoa zatituko da.

Kolektibo bakoitzari dagokion dirulaguntza puntuaren balioa kolektibo horrek lortutako puntu kopuruaz biderkatzearen emaitza izango da.

DONOSTIA KULTURAK eragiketa matematikoaren ondoriozko kantitatea handitu edo murriztu ahal izango du, beste irizpide batzuen arabera, hala nola Kaldereroak izeneko jarduera ikertzeko eta berreskuratzeko lana, kalitate artistikoa, ingurunean duen eragin soziala eta abar. Aldakuntza hori ez da inoiz izango eragiketa matematikoa eginez legokiokeen kopuruaren % 20 baino handiagoa.

Inauteriak:

1.- Norgehiagoka araubideko dirulaguntza lerroa, Donostiako Inauterietako Konpartsa eta Karrozen Lehiaketan eta beste jarduera batzuetan parte hartzeagatik.

2.- Elkarre gastronomikoei, kulturei, kirolekoei, hezkuntzakoei, aisialdikoei eta/edo Donostiako Inauterietako Konpartsa eta Karrozen Lehiaketan eta beste jarduera batzuetan parte hartzen dutenei zuzenduta.

3.- Konpartsa eta Karrozen Lehiaketan eta Donostiako Inauterietako beste jarduera batzuetan parte hartu dutenentzako dirulaguntzetarako aurrekontu-partidan jasotako zenbatekoa banatuko da oinarrietan jasotako alderdi guztiak betetzen dituzten erakunde guztien artean, honako baremo honen arabera:

a) Konpartsen eta Karrozen Desfilean parte hartzearen ondorioz ezarritako zenbatekoaren % 60. Nahitaezkoa izango da larunbat eta igandeko kabalgatetan parte hartzea.

Ehuneko hori honela banatuko da:

a.1) % 25: Larunbat eta igandeko desfileetan erakutsitako parte hartzaile kopuruaren proportzioan emango da.

a.2) % 15: Jantzi bakoitzari gaian adituak emandako balioaren arabera emango da. Dirulaguntza lortutako puntuekiko proportzionala izango da.

a.3) % 30 karrozetarako. Dirulaguntza txosten profesionalean lortutako puntuazioaren arabera emango da. Dirulaguntza lortutako puntuekiko proportzionala izango da.

a.4) % 30 megafoniarako. Dirulaguntza txosten profesionalean lortutako puntuazioaren arabera emango da. Dirulaguntza lortutako puntuekiko proportzionala izango da. Atal honetan, parte hartzen duten konpartsei jakinarazten zaie zuzeneko musika 750 €-rekin ordainduko dela. Musika egiten duen taldeko kideak ez dira konpartsako kideztat hartuko, nahiz eta, era berean, moztarotuta egon behar duten.

b) Partaidetzaren % 40, honako kontzeptu hauen artean banatzeko:

b.1) % 20, Momo jainkoari ongietorria emateko eta hiriko giltzak emateko jardueretan parte hartzeko.

b.2) % 20 A las mañanitas, Mañanitas eta Eskualdaketak izeneko jardueretan parte hartzeko. Kopuru hori proportzionalki banatuko da konpartsa parte-hartzaile guztien artean. Konpartsa bakoitzeko gutxienez 8 lagunek parte hartu behar dute.

Hiru jardueretakoren batera ez joateak berekin ekarriko du kontzeptu horrengatik zenbateko osoa galtzea.

b.3) % 15, DONOSTIA KULTURAK antolatutako desfileetan eta/edo ospitaleetara, geriatrikoetara edo haurrentzako zentroetara egindako bisitaldietan Donostiako auzoetan

jarduteko. Gehienez irteera bat diruz lagunduko da, eta ehuneko hori larunbateko eta igandeko desfileetan erakutsitako kide kopuruaren arabera banatuko da diruz lagundutako

irteerak egiten dituen konpartsa bakoitzeko. Konpartsa guztiek jarduera hori burutu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

b.4) % 25, haurren konpartsen aurkezpenean eta/edo jaian/desfilean parte hartzeko. Ehuneko hori banatzerakoan, desfileetan erakutsitako kide kopurua hartuko da kontuan. Larunbata eta igandea kontuan hartuko dira konpartsa parte hartzaile bakoitzeko. Jaso beharreko zenbatekoa berbera izango da egun bateko edo bi egunetako jardueretan parte hartuta ere.

b.5) % 10, DKk Inauterietako Konpartsa eta Karrozen Lehiaketaren asteburuaren hurrengo larunbatean antolatutako desfilean parte hartzen duten konpartsentzat.

Ehuneko hori berdin banatuko da desfilean parte hartzen duten konpartsa guztien artean.

Dirulaguntza hori jasotzeko, beharrezkoa izango da Konpartsa eta Karrozen Lehiaketan eta beste jarduera batzuetan parte hartu izatea.

b.6) % 10, Altzako Piñatako Igandean parte hartzen duten konpartsentzat.

Ehuneko hori berdin banatuko da Altzako Piñatako igandean parte hartzen duten konpartsa guztien artean.

Dirulaguntza hori jasotzeko, beharrezkoa izango da Konpartsa eta Karrozen Lehiaketan eta beste jarduera batzuetan parte hartu izatea.

Olentzero eta Mari Domingi:

1. Donostiako Olentzeroren edo Olentzeroren eta Mari Domingiren konpartsak antolatzeko norgehiagoka-araubideko dirulaguntza lerroa.

2.- Egoitza eta jarduketa esparrua Donostiako udalerrian duten eta Donostiako auzoetan Olentzero eta Mari Domingi izeneko jarduera antolatzen dituzten gastronomia, kultura, kirol, aisialdi eta/edo jolaseko elkarteei zuzenduta.

3.- Olentzero eta Mari Domingiren konpartsak antolatzen dituzten kolektiboentzako dirulaguntzetarako aurrekontu partidan jasotako zenbatekoa modu ekitatiboan banatuko da kolektibo eskatzaile guztien artean, baremo honen arabera:

Konpartsako kide kopurua:

0,20 x pax.
Gehienez 40 puntu

Musikari kopurua
0,5 x musikari
Gehienez 10 puntu

Gehitutako elementuen kopurua (osagarriak)
0,5 x elementu
Gehienez 5 puntu

Megafonia
1 x 1.000 watt
Gehienez 5 puntu

Argiztapena
1 x 1.000 watt
Gehienez 5 puntu

Beste jarduera batzuk
15 x bakoitza
Gehienez 45 puntu

Saioak
2 x egun
Gehienez 10 puntu

DONOSTIA KULTURAK materiala lagaz gero, puntu hauek kenduko dira:

Oholtzak 0,50 x m²
Hesiak 0,25 x hesi
Megafonia Megafoniaren zenbatekoaren % 100

Talde bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa lortutako puntuen balorazioaren bidez ezarriko da.

Puntu bakoitzaren balioa kalkulatzeko, parte hartzen duten kolektibo guztiek lortutako puntuen baturaren artean banatu beharreko zenbatekoa zatituko da.

Kolektibo bakoitzari dagokion dirulaguntza puntuaren balioa kolektibo horrek lortutako puntu kopuruaz biderkatzearen emaitza izango da.

DONOSTIA KULTURAK eragiketa matematikoaren ondoriozko kantitatea handitu edo murriztu ahal izango du, beste irizpide batzuen arabera, hala nola Olentzero eta Mari Domingi izeneko jarduera ikertzeko eta berreskuratzeko lana, kalitate artistikoa, ingurunean duen eragin soziala eta abar. Aldakuntza hori ez da inoiz izango eragiketa matematikoa eginez legokiokkeen kopuruaren % 20 baino handiagoa.

Era berean, jardueraren garapenean garrantzia duten emakumezko pertsonaiak sartzeagatik (adibidez, Mari Domingi) ezarritako eragiketa matematikoaren ondoriozko kantitatea handitu ahal izango du. Gehikuntza hori ez da inoiz izango emakidarako ezarritako eragiketa matematikoa eginez onuradunari legokiokkeen zenbatekoaren % 20 baino handiagoa.

Auzoko jaiak

1.- Donostiako auzoetan herri jaiak antolatu, ospatu eta zabaltzeko norgehiagoka araubideko dirulaguntza lerroa.

2.- Egoitza eta jarduketa esparrua Donostiako udalerrian duten eta Donostiako auzoetan herri jaiak antolatzen dituzten gastronomia, kultura, kirol eta/edo jolaseko elkarteei zuzenduta.

3.- Donostiako hainbat auzotan herriko jaiak antolatzen dituzten elkarteentzako dirulaguntzetarako aurrekontu partidan jasotako zenbatekoa modu ekitatiboan banatuko da eskatzaile guztien artean, baremo honen arabera:

- Donostiako auzoetako herri jaien antolatzaile guztiek, jaiak amaitu eta 30 eguneko epean, egindako jardueren justifikazio agiriak eta diru sarreraren eta gastuen balantzea aurkeztu beharko dituzte.
- DONOSTIA KULTURAK parekatu egingo ditu ospakizunen prezioak merkatuan indarrean dauden prezioekin. Hala, parekatu egingo du ospatuko diren herri jai guztien balorazioa. Lortutako zenbatekoari % 20 gehituko zaio antolaketa lan gisa.
- Auzoko jai bakoitzari emandako balorazioen batura Donostiako herri jaien balorazio osoa izango da.
- Jai unitateko auzoetako jaietarako dirulaguntzen aurrekontu partidan jasotzen den zenbatekoa herri jaien guztizko balorazioarekin zatituko da, eta horrela lortuko da herri jai guztiei berdin aplikatuko zaien parametroaren balioa (parametroa = puntua).
- Antolatzaile bakoitzak jaso beharreko dirulaguntza puntuaren balioa eta herriko jaiari emandako banakako balorazioa biderkatzearen emaitza izango da.

Aste Nagusi Pirata - Abordatzea

Zuzeneko eta hitzarmenik gabeko dirulaguntzetarako DKFestak-en aurrekontuaren atalean, jasota dago Jaiak Abant Elkartearen aldeko Aste Nagusi Pirata – Abordatzea antolatzeko zenbateko bat.

Zuzeneko dirulaguntza horrekin, helburu hauek lortu nahi dira:

1. Hirian egiten diren kultura, jai eta aisialdiko jarduerak sustatzea
2. Irabazi asmorik gabeko kultura sektoreen jarduerak bultzatzea
3. Donostiarren nortasuna adierazteko kultura eta jai beharrei erantzutea
4. Herritarren eta ekimenari eta ekimen zibikoari babesa ematea
5. Donostiarren kultura prestakuntzari babesa ematea

6. Kulturaren kontzeptu sortzailea, irekia, plurala eta tolerantzia sustatzea
7. Kulturaren eta jaien esparruan euskararen erabilera normalizatzen laguntzea
8. Hiriko kultura jardueretan genero berdintasunaren ikuspegia txerta dadin sustatzea
9. Emakumeen eta gazteen ahalduntzea sustatzea hiriko jai jardueren antolaketan
10. Tradizioen aldaketa positiboa sustatzea, kontuan hartuta berdintasuna, diskriminaziorik eza, ingurumenarekiko errespetua... bezalako esparru garrantzitsuetan egindako aurrerapen sozialak

28.-Jaietako teknikaria eta bere lan eta jarduketa eremuak.

Festa-jardueren teknikari baten lana hiru eremutan garatzen da:

a.- Aurreikusitako jarduerak egin aurreko administrazio-kudeaketa

b.- Programatutako jarduerak ekoiztea/gauzatzea

c.- Jardueren garapenari buruzko balorazioa eta txostena

a.-Aurreikusitako jarduerak egin aurreko administrazio-kudeaketa

Eremu honetan, lanak bulegotik egingo dira.

Ekitaldiaren edo ekoizpenaren aurretik egin beharreko ekintzak direla esango genuke.

Hauek dira garrantzitsuenak:

- ✓ Langileen asteko bileretara joatea. Bilera horietan, teknikari bakoitzak bere ardurapeko ekintzak planteatuko ditu, bai eta horien bilakaera, sortutako arazoak eta ezar daitezkeen konponbideak ere. Bateratze-lan bat da, eta unitatea urteko zein unetan dagoen erakusten du. Landu beharreko gaiak aldatzen joango dira urteko unearen eta une horretan garatzen den programaren arabera (auzoko festak, Aste Nagusia, inauteriak, estropadak, ...).

Batzuetan bileretako gaia bakarra izaten da, eta jarduera berrietarako ideiak emateko (brainstroming) edo aurretik antolatu/egin diren eta berriz programatuko diren ekitaldietan sortutako arazoei irtenbideak planteatzeko egiten dira.

- ✓ Izendatu zaizkion jarduerak kudeatzea, horien tratamendu integrala eginez:
 1. Jarduerak egiteko aurreikusitako espazioa erabiltzeko aukera kontrolatzea eta, bideragarria izanez gero, gune publikoaren erreserba egitea.
 2. Jarduerak zein egunetan eta ordutan egingo diren ezartzea, xede duten publikoaren (target) arabera.
 3. Egin nahi diren jardueren hornitzaileen ahalik eta bilaketa zabalena egitea, zuzendaritzarekin egiten den bileran eta beste gune batzuetan eta beste publiko batzuekin egindako jarduerak kontratatuta, programazioaren behin betiko edukiak zehazteko.

Horretarako, kontuan izan beharko dira:

- ✓ Hizkuntza-irizpideak
- ✓ Berdintasun-irizpideak
- ✓ Jasangarritasun-irizpideak
- ✓ Irisgarritasun-irizpideak
- ✓ Jarduerak kontratatzeko dagoen aurrekontua
- ✓ Aplikatzekoak izan daitezkeen beste lege-alderdi batzuk (adibidez,

4. Programazioa zehaztu eta aurrekontua ezartzen denean, jarduera garatzeko beharrezkoak diren produkzio-fitxak bete beharko ditu. Fitxa horiek, gutxieneko eduki gisa, honako atal hauek izango dituzte:



OSPAKIZUNA

AKTIBITATEA:

DATA(k)	ORDUTEGIA	KOKAPENA

Antolatzailea:

DSSFestak produkzioa:

Koordinatzailea:

Kontaktua:

KONTAKTUAK: (aktibitatean parte hartuko duten pertsona eta enpresa guztienak)

Arduraduna	telefonoa	e-maila
		-

BAIMEN ESKAERAK

BEP zenbakia:	irekiera data	baimen data

OHARRAK BAIMENAK:

KUDEAKETAK

data	nork	kudeaketa

KRONOGRAMA

eguna	ordua	

ESKU PROGRAMAK

EGINGO DIRA?	EZ	OHARRA	---

IBILGAILUAK

--	--	--	--

AZPIEGITURA

MUNTAIA NOIZ	data:	ordua:

DESMUNTAIA NOIZ	data:		ordua:	
oholtza	estalera		kortinak	eskailerak
	P A soinua		faldoia	
aldagelak	moketa		mahaiak	aulkiak
	pertxeroak		ispiluak	
karpak	3x3		kortinak	zertarako
	4x5		kortinak	zertarako
	5x5		kortinak	zertarako
bestelakoak	aulkiak		mahaiak	hesi altuak
	hesi baxuak		tarimak	pasaka-bleak
	linoleoa		gradak	

ESKATZEN DEN AZPIEGITURA BEREZIA eta BALIO DUENA			
Azpiegitura	salneurria	bez	€ guztira
guztira			

BESTELAKO ESKAERAK	
Aparkamendu erreserba	
Karga / deskarga pertsonak	
wc	
ur puntua	
argi puntua (zenbatekoa)	
generadorea (potenzia)	
argi kaixa Konsti	
elektrizista egotea	
garbiketa berezia	
segurtasuna	
sanitar zerbitzuak	
beste zer bait:	

MATERIAL TEKNIKOAK	
SOINUA	ENPRESAREN IZENA
	MATERIALA
ARGIAK	ENPRESAREN IZENA

		MATERIALA						
IKUS-EN-TZUN.		ENPRESAREN IZENA						
		MATERIALA						
frogak		ORDUTE-GIA						
KATERING eta JATETXEA								
ESKATZEN DUTEN KATERINGA:								
JATETXEA:	---	bazkari ala afaria	---	zenbat pax gure kontu	---	zenbat pax ordaintzen	---	
OHARRAK								
AKTIBITATE AMAIERAKO KOMENTARIOAK								
ESKATU DEN MUNTAIA								

IFK-CIF Q20005411

Fitxa dinamikoa da, jardueren kudeaketan zehar aldatzen joan ahal izango dena, eta, gainera, ekitaldiaren ekoizpena eroso egiteko ez ezik, talde antolatzaileko gainerako kideek kontsultatzeko eta, edozein gorabeherarengatik, jardueren kargu egiteko ere balioko du.

Fitxaren edukia alda daiteke egingo den jarduera-motaren arabera: ez da gauza bera kirol-proba bat antolatzea edo arte-azoka bat, desfile bat edo musika-kontzertu bat antolatzea.

5. Antolatzaileak jarri behar dituen baliabide teknikoak eta azpiegitura planteatzea eta Festak Antolakuntzako teknikariari helaraztea, ohiko hornitzaileekin kudeatu ditzan.

6. Beharrezko baimenak eskatzea (bai udal-baimenak bai beste erakunde batzuenak) jarduera egiteko, eta txostenen, erakunde baimen-emaileak konpondu beharreko gaien... jarraipena egitea aurreikusitako ospakizuna egiteko ebazpena/baimena lortu arte.

Aurreko guztia egin ondoren, programazioa gauzatzeko unea iritsiko da...

b.-Programatutako jarduerak ekoiztea/gauzatzea

Eremu honetan, jarduera-programa gauzatzeko alde zuretik aukeratutako eta baimendutako guneetan lan egingo da.

Ekoizpen- edo gauzatze-ekintza gisa definitu ditzakegu.

Une honetan, lehenengo fasea burokratikoa izatetik exekutiboa izatera igaroko da: jai-
eskaintza azken erabiltzailearengana, publikoarengana, iritsiko den unea da.

Festa-jardueren teknikariak honako zeregin hauek izango ditu:

1. Jardueren *in situ* exekuzioa koordinatu behar du. Zeregin horrek hiru fase ezber-
din ditu:

1. fasea:

- ✓ Beharrezko/konprometitutako azpiegitura guztia jarduera garatuko den le-
kuan behar bezala instalatuta dagoela kontrolatzea. Beharrezko horni-
gaiak/zerbitzuak hornitzaileei aurrez helarazitako ordutegian entrega-
tuta/instalatuta daudela kontrolatu behar da.
- ✓ Materiala, kalitateari eta kopuruari dagokienez, eskatutakoa dela txekea-
tzea.
- ✓ Sortutako edozein gorabeheraren ondorio liratekeen muntaia-akatsak zu-
zentzea/jakinartzea.
- ✓ Muntaia erabat amaitu dela eta jarduera egitea bideragarria dela jakina-
ratzea.

2. fasea:

- ✓ Programatutako jardueren hornitzaileak hartzea (artistak, begiraleak, ki-
rolariak, elkartek...)
- ✓ Azpiegitura propioa muntatzen eta/edo erakundeak jarritako azpiegitura
eskura ematen laguntzea.
- ✓ Ikuskizuna eta programatutakoa eskaintzeko behar diren ekintzak behar
besteko denboraz amaituko direla kontrolatzea, jarduerak aurreikusitako
orduan hasi ahal izan daitezen.
- ✓ Gogoan hartzea:
 - Publikoaren erantzuna jardueraren aurrean (bertaratuen kopurua,
generoaren, adinaren eta beste ezaugarri batzuen arabera bereiz-
keta...).
 - Jarduera garatu bitartean izandako gorabeherak.
 - Muntatutako azpiegituraren koherentzia jardueraren premiekin (be-
har adina aulki edo gehiegi jarri diren, jarduerak xede-publikoaren
interesa piztu duen edo ez dituen aurreikuspenak bete, jendearen
komentarioak izan den – positiboak eta negatiboak...)

3. fasea:

- ✓ Erabilitako material guztia jaso den txkeatzea.
- ✓ Erabilitako gunea jaso zenean bezala utzi den egiaztatzea.

c.-Jardueren garapenari buruzko balorazioa eta txostena

Kaleko ekintzak amaitu ondoren, teknikariak berriz ere bulegoan egingo ditu administrazio-lanak.

Egin diren jarduerak ixteko, horien balorazioa egingo da (teknikari bakoitzak bere ardurapean hartutako guneei buruz egindako txostenaren bidez eta langileen asteko bileretako batean bateratze-lana eginez), eta berariazko artxibo batean jasoko dira hurrengo edizioko jarduera berdinetan edo antzekoetan egin beharreko zuzenketak.

Hornitzaileek emandako zerbitzuei dagozkien fakturak jaso izanaren jarraipena egin beharko da, dagozkion ordainketak egin eta jardueraren kontabilitatea itxi ahal izateko.

Jardueraren babeslerik balego, hedabideen estaldura-dosierra egin beharko da babesleei bidaltzeko.